



PSE-EEko udal eta Foru Aldundiko hautagaiak Jesus Zaballos eta Denis Itxaso azokan izan ziren.



EAJ-k udal kirol instalazioak berritzeko duen proiektua aurkeztu zuen.



Lasarte-Oriak Ahal Du hautesle taldeak mitina eskaini zuen Isla Plazan.



Herritar talde batek EHBilduko Pablo Barriori bere babesa eman zion.



Alex Saenz PPko alkategaia eta Borja Semper Gipuzkoako alderdiko lehendakaria Zumaburu aldean izan ziren.

Alderdiak bozka erabakiorren bila

Ekintza ezberdinak burutu dituzte

Hauteskunde kanpaina amaitzeko orduak besterik ez dira geratzen. Aste honetan alderdi politikoak zalantzan zeuden herritarren bozkek bereganatzen saiatu dira eta horretarako, ekintza ezberdinak burutu dituzte. Igandean ikusiko da haien ahaleginak fruitua eman ote duten.

Bihar hausnarketa-eguna dugu, igandean berriz, hauteskunde eguna. Alderdi politikoek gaur Gipuzkoako Foru Aldundi, zein udal hauteskundetako boto-emaileak konbentzitzeko azken orduak dituzte aurretik.

Alabaina, aste osoan zehar hainbat ekintzaren bitartez egin dituzte haien ahaleginak.

Agerraldiak

EHBilduk herriari eman zion hitza astelehenean Tximistarretako parkean. Pablo Barrio alkategaia, zerrenda kideak eta Ander Rodriguez Foru Aldundiko Gizarte Politika arduradunak herritarren galderei erantzun zieten. Hainbat izan ziren jorratutako gaiak hala nola, aniztasuna, zaborren kudeaketa, herritarren pobrezia edo hezkuntza.

Era berean, Pablo Barriori atxikimendua emanez bildu ziren asteazkenean hainbat aurpegi ezagun. Atzo berriz, Sagardotegi plazan jarri zuten postua.

EAJk herriko kirol instalakuntzak hobetzeko eta ibai-ertza berreskuratzeko dituen proiektuak aurkeztu zituen asteazkenean. Alderdi jeltzaleak Michelinen kiroldegi berria erakitzea proposatzen du eta Atsobakar auzoan bigarren futbol zelai bat ere bai. Gainera, ibai-ertza parke moduan irudikatzen dute EAJko kideek.

Honetaz gain, Lasarte-Oriako HamaikaBat alderdiko kideek Estitxu Alkortari babesa agertu diote.

Bestalde, Lasarte-Oriak Ahal Du hautesle taldeak mitina eskaini zuen Isla plazan. Enplegua sustatzeko plan bat beharrezkoa dela azpimarratu zuen honetan Arkaitz Naya alkategaia.

Gaur Okendo plazan izango dira 19:00etatik aurrera.

Bisitak

Ekintza hauetaz gain, asteazkeneko azokan izan ziren PSE-EE, EHBildu eta EAJ herritarren proposamenak, kezak eta eskariak entzuten.

PSE-EEko Jesus Zaballos alkategaia gainera, Denis Itxaso ahalungaiaren bisita izan zuen eta biek arrosak banatu zituzten azokan.

PPko Alex Saenz aldiz, ostegunean Borja Semper Gipuzkoako alderdiko lehendakariarekin izan zen haien programa herritarrei azaltzen.



**LASARTE-ORIA
EKINEZ EGINA**
**HECHOS
PARA LASARTE-ORIA**

EMAN BOTOA / VOTA



Neure kabuz



Unai Muñoa
Herri harresia

Denborarekin desintoxikatzen ari banaiz ere, zenbait boladatan tertulianomano samarra izan naizela onartzen dut. Maiz egoten naiz etxeko zein Espainiako debateei adi, baina nire osasun emozionalarentzat suposatzen duen nahaspilaz ohartu nintzenez, bestelako aukerak egiten hasi nintzen, tarteka tentazioan erortzen banaiz ere.

Halaxe izan zen duela hiru edo lau egun, ETB2-ko debate batean Gasteizko herri harresiaren gainean hausnarrean sumatu nitueanean, eta garai zaharretara bidaiatu nuen, beste behin. Garai zaharrak berri nahian gabiltzantz, ordea, mingarria da era horretako espektakuluak ikusi behar izatea. Etsigarria zait eremu politikoan jarduteagatik espetxeratzen dituzten gazteak herri zaintzarako omen daudenen furgona beldurrietan eramaten dituzteanean. Amorrugarria zait gorrotoa ezkutatu ezin dutenek errukirik gabe bat eta beste egurtzen dutenean, indarkeriaren gainean dagoen hipokresia agerian utziz.

“Zer egin behar zuen ertzantzak bada? Legea bete beste aukerarik ez dute...” argudiatu zuen hizlari batek. Orduan, logika bera jarraituta, zer egin behar zuten gazteek mendeku politikoaren ondorioz, heldu lekuri gabeko sententzia batetan oinarrituta, preso erori direnean? Zer egin behar dute garai politiko honetan ulertezina den epai juridiko baten aurrean? Benetan uste duzue politika egiteagatik espetxeratu behar dituzten gazteak borondatez aurkeztu behar direla epaitegietan, inolako salaketa eta erresistentziarik gabe?

Nire hautua argia da! Ez dut iraganeko garaietara itzuli nahi, ez ditut errezeta zaharrak nahi, baina beti egingo dut zapalduen alde. Aupa gazteak!!! Ez zaudete bakarrik!!!

Zorion agurrak



Eider
12 musu handi handi gure sorgina txikiari familiaren partez!!



Naroa
Zorionak printzesa zure 10garren urtebetetzean. Muxu piiiillllooo bat zuretzat. Haizea, Andrea eta familiaren partez.




Markel Lopez
Zorionak pottoko 4. urtebetetzean June eta familiaren partetik



Maddi
Zorionak etxeko printzesari, handitzen ari zara ia. Zortzi muxu potolo etxekoan partez, aita, ama eta Arkaitz



Sara
ZORIONAK TXAPEL-DUNA! 5 muxu potolo etxeko marimatrakari!!!!



Ekhi eta Aizpea
Zorionak bikote! Ostiralean festa bikaina prestatuko dugu denon artean. Ondo ondo pasa eta pila bat muxu. Familiaren partetik.



Maddi
Zorionak Maddi! Zoragarria da zu hazten ikustea! Asko maite zaitugu! Unax, Oier, ama eta aita.

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo txintxarri.eus web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Azoka txikia

Higiezinaren Eskaintza

• Salou. Apartamentua alokatzen da 4-6 pertsonentzako. Berritua eta aire egokituarekin. Erdialdean dago eta hondartza gertu du. Bi igerileku erabilgarri. Alokairua 350 eurotik gora astea. 616 14 81 68.

Lan-eskaria

• Emakumea eskaintzen da etxeak garbitu, zaintza egin edo sukaldari laguntzaile lanak egiteko. Paperak eta erreferentziak ditu. 648 90 67 82.
• Pertsona nagusiak eta umeak zaindu eta etxeko lanak eta garbiketarako egiteko pertsona eskaintzen da. 648 19 84 56.

• Lan bila nabil. Zaharrak edo umeak zaintzen. Interna edo externa moduan. 645 78 72 72.
• Esperientzia eta erreferentziak dituen emakumea eskaintzen da garbiketarako lanak, ume edota nagusien zaintzan lan egiteko. 663 99 05 52
• Etxeko lanak, pertsona nagusiak edo umeak zaintzen interna edo externa lan bila. 600 33 40 21.

Bestelakoak

• Pisu txikia, baju bat ala egongela bat alokatu nahi dut Lasarte-Orian. Ikaslea naiz. 650 50 19 10.

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Ioar Diez Perez, maiatzaren 18an
- Pedro Garcia Lopez, maiatzaren 13an.
- Aroa Perez Martin, maiatzaren 11an.
- Alexia Eseosa Osarenkhoe, maiatzaren 11an.



Heriotzak

- Maite Nogues Marticorena, maiatzaren 16an, 91 urte zituela.
- Dominica Urriza Villanueva, maiatzaren 15ean, 87 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 22	De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Larunbata, 23	Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Igandea, 24	Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Astelehena, 25	Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Asteartea, 26	Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Asteazkena, 27	Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Osteguna, 28	Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567

GAUEKOA: 22:00-09:00, egunero
Echeveste Eloseg, Elkano 9
Hernani, Tel.: 943 552087

Udalaren telefonoak

Erregistroa	943 371629
Euskarako Zerbitzua	943 376184
Kiroldegia	943 376182
Kulturetxea	943 376181
Gizarte Zerbitzuak	943 376179
KIUB	943 361605
Udal euskaltegia	943 361621
Munnteri AEK	943 372863

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Laguntzailea



Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557
Legezko gordailua:
SS513/93
ISSN: 1134-0053
Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maidier Azurmendi, Nerea
Eizagirre, Jon Altuna E.
txintxarri@txintxarri.info
Publizitatea eta administrazioa:
Arantza Artola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com
Laguntzaileak:
Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odriozola, Maidier Seguroa,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Pako
Aizpitarte, Edu Galardi
Informatikoa:
Xabier Amadoz

BIDEGORRIA

Bizikletan Donostiara

Errekalde eta Lasarte-Oria arteko bidegorria ireki dute

Lasarte-Oria eta Donostia lotzen dituen bidegorria herritar askoren eskaera izan da azken urteetan. Astelehenean, Errekalde eta Lasarte-Oria arteko zatia ireki zen. 1.230 metroko bizikleta eta oinezkoentzako bidea da eta honi esker, Donostiara paseoan edo txirrindan joateko aukera dute orain herritarrek.



Trenbide zaharretik doa Lasarte-Oria eta Errekalde lotzen dituen bidegorria.

TXINTXARRI

Aldundiak Errekalde eta Lasarte-Oria bitarteko bidegorria ireki zuela jakitera eman zuen astelehenean. Tarte hori irekita, bidegorri bidez lotuta gelditu dira Donostia eta Lasarte-Oria. Lasarte-Oriako Udalak maiztza amaierarako lanak amaituko zirela iragarri zuen eta hala izan da.

Bidegorria eraikitzeke lanak Campezo enpresak egin ditu, 690.000 euroko kostua izan dute eta bost hilabete inguru iraun dute.

Lasarte-Oria eta Errekalde arteko trenbidea bikoizteke lanak egin zirenean, trenbide zaharra erabat utzita gelditu zen. Lasarte-Oriako Udalak bide hori erabiltzeko proposa-

mena egin zuen eta bizikleta eta oinezkoentzako bide bihurtzeko bideragarritasuna aztertuko zuela azaldu zuen Aldundiak.

Azterketa 2012ko azaroan agindu zen, eta ondoren, proiektua egin zen. Iazko martxoan Lasarte-Oriako herritarrek proiektuaren berri izan zuten Manuel Lekuonan egin zen bileran.

Ibilbidea

Bidegorri zatia Errekalden (Donostia) hasten da, GI-21 errepideak (N-I zena) eta Hernaniko errepideak bat egiten duten biribilgunean, ondoren trenbide zaharraren ibilbidea

hartzen du eta Urbil merkataritza zentrora iristen da, Lasarteko mugara.

Foru Aldundiak azaldu duenez, bide guztian zehar LED argiak erabili dira eta tuneletan mugimendu detektagailuak jarri dira argiak pizteko.

Loturak

GI-21 errepidearen biribilguneetik gertu bidegorri berriak bat egiten du Donostia-Errekalde bidegorri zatiarekin eta etorkizunean leku horretan bertan bat egingo du baita Donostiatik etorriko den udal bidegorriarekin eta Galarretatik iritsiko den foru bidegorriarekin ere.

BERTSOLARITZA

"Doinuak lumaz" saioko sarrerak

Maiatzaren 29an, Ttakunek antolatu duen "Doinuak lumaz" Udaberriko bertso saio berezia izango da Manuel Lekuona kultur etxean. Honetan, Ane Labakak, Maialen Lujanbiok eta Andoni Egañak Lasarte-Oriako hainbat idazleren testuak izango dituzte oinarri kantuan egiteko.

Ekitaldiko sarrerak 5,50 euro balio ditu. Hamarreko bonoa erosiz gero, 45 euro dira. Antolatzaileek azaldu dutenez, bono hau aurretik erosi behar da eta egunean bertan trukaturako litzateke. Sarrerarik erabili ezean, Udaleko kultura sailak eskaintzen dituen emanaldietarako baliagarria izango litzateke.

UDAL MUSIKA ESKOLA

Aurrematrikula garaia

Lasarte-Oriako Udal Musika eskolak 2015-2016 ikasturteko aurrematrikula garaia ireki zuen astelehenean.

Musika txoko, musika-hizkuntza, musika-tresna, musika hizkuntza + musika-tresna, korua, kamara, armonia edo taldea dira Udal Musika Eskolaren hurrengo ikasturterako eskaintza.

Musika eskolako arduradunek jakitera eman dutenez, plaza eskuratzeko derrigorrezkoa da aurrematrikula egitea.

Gainera, plaza eskaera egiterakoan 40 euroko bermea egongo da, matrikula egin ondoren bueltatuko dena. Matrikula gauzatzen ez bada, berme hori galduko dute herritarrek.

Plaza korreoz konfirmatuko da eta matrikulazioa domizializazio bidez, ordainduko da. Aurten berrikuntza modura erraztasunak izango dira matrikula ordaintzerako garaian, ordainketa bakarra edo zatikatua, 10 hilabetetan egin ahalko da. Maiatzaren 29ra arte, Manuel Lekuona kultur etxean egin ahalko da matrikulazioa 09:00etatik 13:00etara. Matrikula berriz, uztailean egingo da.

EUSKAL PRESOAK

Arrozpideren epaiketa hasi da

Astelehenean hasi zen Santi Arrozpideren kontrako epaiketa Auzitegi Nazionalan eta fiskalak 14 urteko espetxe zigorra eskatu du berarentzat 1986ean Madrilen gertatutako atentatu saiakera batean agindua eman zuela argudiatuta.

Santiago Arrozpidek aske uzteko eskatu eta ez zuen deklaratu nahi izan asteleheneko epaiketa saioan.

Arrozpide Frantzian betetako espetxe urteak kontutan hartuta atera zen kartzelatik abenduan. Erabakiak polemika handia sortu zuen, eta martxoan, Auzitegi Gorenak baliogabetu egin zuen Plazaola eta Arrozpide aske uzteko Auzitegi Nazionalak abenduan hartu zuen erabakia. Urtarrilean San Pedro eliza parean atxilotu zuten berriro ere.

Auzi honetaz gain, 1987an Bartzelonan Juan Fructuoso Gomez en kontrako atentatuagatik ere auzipetu nahi dute.

IKASTAROA

Janari Manipulatzailerik ikastaroa

Elkolab enpresak, Lasarte-Oriako Udalaren Sanitateko Departamentuarekin elkarlanean, janari-manipulatzailerik ikastaro berri bat emango du maiatzaren 26an.

Ostalaritzako sektoreari zuzendua dago eta Osasun Sailak eskatzen duen autokontrolaren inguruko edukiak jorratuko dira. Anbulatorioko bigarren solairuko erabilera anitzeko aretoan eskainiko da ikastaroa, 16:00etatik 20:00era.

Prezioari dagokionez, pertsonako 45 euro ordaindu behar dira. Langabetuentzako, berriz, prezio berezia dago 35 euro eta erregimen orokorra duten pertsonen bonifikazioak lortu ditzakete. Informazio gehiago jasotzeko edo izena emateko, bi telefono daude: OMC 943 36 16 05 edo Elkolab 943 53 33 03.

AUZIA

Ana Urchueguia alkate ohiaren deklarazioa atzeratu da

Hedabide ezberdinek jakitera eman dutenez, atzo zen deklaratzeko Ana Urchueguia Donostiako 3. auzitegiko epailearen aurrean "diru publikoen prebarikazio eta bidegabeko uestezko erabilpenagatik" Lasarte-Oriako udalak jarritako salaketari erantzunez. Hauetan esaten denez, alkate ohiak eskatutako atzerape-na da eta horrela, datorren ostiralean, maiatzaren 29an izango du hitzordua salaketaren inguruan azalpenak emateko.

Martxoko ohiko udalbatzarrean eman zen ezagutzera epaileak salaketa tramitera onartu zuela.

Gidabaimena euskaraz eta doan

Buruntzaldeko Udalek "Gidabaimena euskaraz" egitasmoaren kanpaina berria aurkeztu zuten ostegunean Hipodromoan, honetan parte hartzen duten autoeskoletako ordezkariarekin batera.

Buruntzaldeko udalen ekimenez abiatu zen gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz ateratzeko ekimena 2010ean.

2014ean 21 ikasle

Geroztik urtetik urtera gora doa eskualdean teorikoa euskaraz ateratzen duten pertsonen kopurua. Lehenengo urtean guztira 34 ikasle izan ziren eta 2014an berriz, 140 izan ziren. Hauetatik Lasarte-Orian 21 izan ziren iaz gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz atera zutenak.

Urtean zehar teorikoa euskaraz ikasi eta gaintu dutenen artean zozketa egiten da



Autoeskoletako ordezkariak izan ziren osteguneko aurkezpenean.

eta 400 euro arteko saria eskuratu dezake sarituak. Herri bakoitzeko autoeskola kopuru adina sari ateratzen dira, Lasarte-Orian, hiru.

Izan ere, gurean Izarra, Mugika eta Lasarte autoeskolak dira egitasmoan parte hartzen dutenak. 2015ean teorikoa euskaraz gaintutako

dutenen artean 2016ko urtarilean egingo da zozketa. Honetan parte hartzeko Buruntzaldeko herriren batean erroldatuta egotea eskatzen da.

Buruntzaldeko Euskara zerbitzuek herritarrek animatzen dituzte euskararen aldeko hautua egitera.

Bertsolaritzan trebatzen

'Gu ere bertsotan' egitasmoko saioak egin zituzten bi ikastetxeetako ikasleek

Gu ere bertsotan ekimeneko kurtso amaierako erakustaldia egin zuten Landaberri eta Sasoetako 5. eta 6. mailako gaztetxoek astelehenean. Ikasturtean zehar bertsotan ikasi dutela erakusteko saio originalak aurkeztu zituzten irakasle, guraso eta lagunen aurrean Manuel Lekuonan.

TXINTXARRI

Azken urteetan bezala, ikasturte honetan ere Bertsozale elkarteak eta Lasarte-Oriako udalak herriko ikastetxeetan bertsolaritza lantzeko egitasmoa gauzatu dute.

Unai Muñoa bertsolaritza irakaslearekin 5. eta 6. mailako ikasleek bertsoak nola osatu eta hauek kantatzen ikasi dute.

Hilabete hauetan guztietan egindako lanaren erakusle izan zen astelehen arratsaldean Manuel Lekuonan egindako emanaldia.

Bertan bildu ziren lehenengo 5. mailako sei taldeak, lau Landaberrikoak eta bi Sasoetakoak, eta ondoren 6. mailakoak etorri ziren.

Saio laburrean taldeka aritu ziren oholtzan. Batzuek rap-ak aukeratu zituzten eta salto artean bertsotan hainbat eskaera egin zizkieten guraso eta irakasleei besteak beste,

etxerako lan asko ez bidaltzea edota, eskolaz kanpoko hainbeste ekintzekin denborarik ez dutela beste ezertarako. Bertaratutako en irribarra eragin zuten askotan eta txalo zaparrada luzekin erantzun zuen publikoak.

Bigarren saioa 6. mailako ikasleena izan zen. Honetan ere estilo ezberdinak hautatu zituzten gaztetxoek. Besteak beste, maitasunaren inguruko bertso elkarrizketak egin zituzten Landaberrikoak eta Sasoetako ikasle talde batek, kanta ezagunen doinuak erabili zituen bertsoak egiteko. Agurreko bertsoetako batean Landaberriko talde batek irakasleak agurtu zituzten datorren ikasturtean, DBHn sartuta, lagun berriak eta irakasle berriak ezagutuko dituztelako.

Guztira 200 ikasle baino gehiago izan dira ikasturte honetan zehar 'Gu ere bertsotan' egitasmoan parte hartzen.



Lehenengo saioa 5. mailako ikasleek eskaini zuten mozorro eta guzti.



Bertso elkarrizketak egin zituzten Landaberriko talde batek eta Sasoetakoek abesti ezagunen doinuak erabili zituzten.



Ane Labakak maiatzaren 3an izango du bigarren saioa. GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Labaka eta Muñoa irabazle

Igandean Hernaniko Sandiusterrri aretoan jokatu ziren Gipuzkoako Bertso txapelketako lehen itzuliko azken saioak.

Arratsaldeko saioan, Ane Labaka herritarra izan zen kantuan eta garaipena erdietsi zuen 250 puntu lortuta. Bigarren Josu Oiartzabal izan zen, 241 punturekin eta Oier lurrmendik lortu zuen hirugarren postua, 240 punturekin.

Baina ez zen sailkapen saioetan lehiatu zen herritar bakarra izan. Bigarren itzulia-

ri hasiera eman zitzaion Bergarako Zabalotegi aretoan eta bertan Unai Muñoa arratsaldeko saioa irabazlea izan zen, 278 punturekin. Aratz Igartzabal sailkatu zen bigarren postuan, 254,5 puntu batuta eta Haritz Garmendiak eskuratu zuen hirugarrena, 231,5 punturekin.

Muñoa lehen itzuliko saioan ere garaile izan zen. Guztira, 576,5 puntu eskuratu ditu sailkapen fase honetan eta bere bertsoen batzuek beste-koa, 6,551ekoa da.

Oraingoz, sailkapen

orokorrean hirugarren dago eta Gipuzkoako txapelketarako txartela izango luke.

Bigarren saioa

Anek berriz, maiatzaren 31n, igandea, Zizurkilgo goizeko saioan izango du bere puntuaketa loditzeko aukera.

Bestalde, Earra! Bertso eskolako Beñat Iguaranek Zizurkilan abestuko du 31 arratsaldean eta Asier Azpiroz Atauneko arratsaldeko saioan izango da ekainaren 6an, sailkapen faseari amaiera emango dion saioan.

Zuregandik hurbil

Etorri gure denda berrira,
Plaza Oriamendi, 2. (Lehenko Doble J)

www.facebook.com/VentanasAlcar

Jarrai gaitzazu Facebooken! gure jarraitzaile artean, laister hasiko gara opariak banatzen

Me gusta

- Leihoak
- Ateak
- Itxiturak
- Armariuak
- Barandak
- Portalak
- Erakuslehoak
- Kontraleiho landatarrak
- Kontraleihoak lama finko eta orientagarria
- Pertsianak
- Saretak

- Sabai-Leihoak
- Toldoak
- Errezel-Hormak
- Beirateria orokorrean
- Dutzako manparak
- Sarrera ate korazatuak
- Konposite materialekin horma estaldurak
- Kartel komertzialen instalakuntza
- Gortinak


PVC, aluminio eta zubi termikoaren haustura, lantzen ditugu

ERAKUSKETA
Plaza Oriamendi, 2
20160 - Lasarte-Oria
Gipuzkoa - (Lehenko Doble J)

TAILERRA
Ibaiondo, 4 erdisotoa 5-A
20160 - Lasarte-Oria
Gipuzkoa

Tel: 943 37 78 68
tienda@ventanasalcar.com
www.ventanasalcar.com

Jarraitu hemen, www.facebook.com/VentanasAlcar



Igandean udal berria erabakiko da Aldundia osatzeko ere bozkatu beharko dute herritarrek, honetan, gehiago dira zerrendak

Alderdiek kanpaina egin dute herrian jendea etxean gera ez dadin. Lasarte-Oria udalerrri denetik bozka gehien jaso duen alderdia izan da PSE-EE. Azken legegintzaldian 7 zinegotzi izan ditu eta 2003an 10 zinegotzi izan zituen, inoiz lortu dituen gehienak. Guztira bost zerrenda aurkeztu dira gurean aurtengoan, aurrekoetan baino bi gutxiago.

Azken lau urtetako udal gobernuaren osaketari dagokionez, PPK zinegotzi bat izan du, Vanessa Velez, Lasarte-Oriako herritarren Plataformak bi, Ana Prieto eta Juanjo Castro, EAJ-PNVk beste bi zinegotzi, Estitxu Alkorta eta Boris Nogales, EHBilduk bost, Pablo Barrio alkatea, Nerea Sanchez, Gorka Lizarraga, Taxio Arrizabalaga eta Alaitz Mendizabal.

Azken hauteskundeetan, 7 zinegotzi lortu zituen PSE-EEK Jesus Zaballos, Lourdes Acevedo, Iñaki Mugika, Txus Alonso, Nerea Artamendi, Martin Moreno eta Marisa Zubiri. Azken honek alderdia utzi eta adskribatu gabeko zinegotzi bezala jardun da lau urte hauetan.

Horretaz gain, Nerea Artamendiren ordezkari sartu zen

duela hilabete Fernando Escoriaza.

Bestalde, badira hainbat berritasun herriko zerrendei dagokienez.

Batetik Lasarte-Oriako herritar Plataforma ez da hauteskundeetara aurkeztu. Urte luzez egindako lana momentuz etetea erabaki dute nahiz eta eurek adierazi moduan, berriz beharra ikusten badute aurkezteko prest izango diren.

Bestetik, azken urteetan aurkeztutako Ezker Batua Berdeak taldeak ez du hautagaririk izango herrian.

Guztira bost dira herrian aurkeztu diren zerrendak eta gainonetzako udalerrietan bezala, berrikuntza nagusia Lasarte-Oriak Ahal Du hautesle taldea da.

Hauek ia 800 sinadura lortu zituzten hauteskundeetara aurkeztu ahal izateko eta

udaletxean lekua izatea espero dute.







Abstentzioa

Gainontzean, PP, PSE-EE, EHBildu eta EAJ-PNV dira herritarrek udalerriko aukeratu dituzten gainontzeko zerrenda eta programak. Alderdi bakoitzak bide ezberdinak erabili ditu herritarrengana jotzeko eta denek bat egiten dute jendea etxean ez geratzeko deian.

Izan ere, abstentzioari dagokionez, 2011an %35,88koa izan zen, 2007ko emaitzarekin alderatuz hiru puntu txikiagoa baina 2003koa baino bost puntu altuagoa.

Lasarte-Oria udalerrri independente denetik, udalaren osaera jaso dugu. Horrekin batera azken hauteskundeetan alderdi bakoitzak jasotako bozkek edota sekziokako emaitzak.

Batzar Nagusiak ere osatu behar dira eta honetan aukera zabalagoa dute herritarrek, Donostialdean, PP, EAJ-PNV, PSE-EE, EHBildu, C's, UPyD, Irabazi-Ganar Gipuzkoa eta Podemos baitaude.



Partida	S01	S02	S03	S04	S05	S06	S07	S08	S09	S10	S11	S12	S13
Zentsua	723	1.209	1.322	1.085	599	1.233	966	954	1.773	500	1.542	896	1.093
Baliogabeak	4	7	10	10	6	6	12	9	14	6	10	7	6
Zuriak	8	18	15	15	5	10	10	10	18	8	19	10	21
PSE-EE	75	333	399	233	130	184	328	267	301	186	325	166	220
BILDU	248	133	156	184	102	239	68	90	368	112	238	129	101
EAJ	81	43	85	84	77	145	53	61	164	67	85	62	84
H1!	18	11	16	25	12	42	13	20	69	11	24	16	22
EB	11	18	20	7	10	16	14	13	27	15	25	9	14
PP	28	96	61	48	46	38	73	91	79	33	75	48	69
LOHP	29	85	74	57	27	61	71	64	119	52	137	86	118
ARALAR	7	4	2	6	6	17	5	7	25	10	32	13	18

2011an sekziokako alderdi bakoitzak jasotako bozka kopurua.

ADURIZ DE LASARTE S.A

Odolkia- Solomo ontzutua Solomoa baratxuritan

Etxeko txorizoa Tripakiak- Saltxitxak

BERTAKO FABRIKAZIOA

Loidi Barren kalea 3 · 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451

LABURRAK.-


LOKEko gimnastak asteburuan Ibarren jokatu den Gipuzkoako Txapelketari begira

Larunbat honetan amateur mailako Gipuzkoako txapelketa lehiatuko da Ibarren kiroldegian. Goizeko saioan, kadete B taldeak bi pilota eta hiru uztairekin egingo du lan eta Senior A taldeak 5 uztaiko lana erakutsiko du. Bakarkako Senior A mailan Aizpea Arroyo eta Garazi Gomez izango dira txapela eskuratzeko borrokan. Uztaia eta xingolarekin egin beharko dute lan biek. Arratsaldekoan, jubenilen A taldeak mazekin lehiatuko du eta banaka, jubenil B mailan, Ainara Apeztegiak maza eta zintekin egingo du saioa.

Bestalde, Udaberri Torneoko bigarren faseko jardunaldia jokatu zen igandean Oiartzungo kiroldegian.

LOKE-Landaberriko alebin taldeak parte hartu zuen txapelketa honetan eta 28 talderen artean seigarren amaitu zuen.

Maite Rueda entrenatzaileak adierazi duenez, oso pozik daude emaitzarekin. "Taldea honen lehen urtea da eta ezin gara lortutako emaitzetaz kexatu".



Herritarrak Iruñeko Iron Man erdian eta Zegama-Aizkorri mendi-maratoian

Ramon Altuna, Imanol Arteaga eta Zigor Gallardo Saiatuz taldeko triatletek Iruñeko Iron Man erdian parte-hartu zuten larunbatean. Probaren lehen edizioan 400 lagunetik gora atera ziren. Alkozeko urtegiaren 1,9km egin zituzten igerian. Alkozetik Iruñeara bitarteko 85 kilometroak bizikletaz eta Nafarroako hiriburuan maratoi erdia, 21km, egin zituzten korrika.

Imanol Arteaga izan zen herritarren artean onena 60. postuan, 4 ordu eta 49 minutuko denborarekin. Ramon Altuna 106. postuan sailkatu zen 5 ordu eta minutu bat eginda. Zigor Gallardok azkenik, 310. egindako 5 ordu eta 49 minutuko denborarekin.

Bestalde, Fadrique, Urruzola, Izagirre, Gartzia eta Granado Zegama-Aizkorriko herriko parte-hartzaileek euren argazkiak bidali dizkigute.



PILOTA.-

Herriarteko txapelketa hasiko du Lasarte-Oriak

Final-zortzirenetako joaneko hiru partidak gaur jokatu ditu Zizurkilen aurka, etxetik kanpo, Intxaur pilotalekuan



Jon Pello Artetxe Donostiaren aurka duela urtebete Atanon jokatu den finalurrekoan. Finalaren atarian esan zioten agur txapelketari.

Iluntzean ekingo dio Lasarte-Oriak herriarteko txapelketari. Zizurkilen aurka jokatu du final-zortzirenetako joaneko kanporaketa, arratsaldeko 20:00etatik aurrera Intxaur frontoian. Talde gaztea dute, eta zaila izango da iazko balentria berdintzea.

JON ALTUNA EGITEGI

Maiatzaren 10eko asteburuan hasi zen ofizialki Gipuzkoako Herriarteko txapelketa. Hiru modalitate bildu ditu aurtengo txapelketak. Eskuz 22 herririk hartuko dute parte, zortzirik palan eta hiruk zesta-puntan.

Lasarteoriatarrek eskuzkoan soilik hartuko dute parte. Kadete mailan, Julen Urruzolak eta Alex Etxeberriak jokatu dute. Jubenil mailan Jagoba Mendizabalek eta

Eneko Sarasolak. Senior mailan, azkenik, Jon Pello Artetxek eta Mikel Elolak. Ordezkoen aulkitxoan berriz, Axier Arteaga, Aritz Urkia eta Xabi Arteaga eseriko dira.

"Kanporaketa zail dago, talde oso gaztea dugulako eta kadete eta jubeniletan lehen urteko pilotariak ditugulako. Hori bai, seniorretan bikote txukuna daukagu eta lan ona eginez gero, maila nagusian ez da horren erraza izango guri irabaztea", dio Jose Felix Solano Intzako prestatzaileak.

Dena den, iazko balentria berdintzea garesti dago. Bate-tik, zizurkildarren hiru bikoteak fidagarriak eta maila onekoak direlako eta bestetik, iaz finalurrekoetaraino iritsi zirelako lasarteoriatarrek, Donostiaren aurka jokatu zuten. Herriartek Atanon 2-1 aurrea hartu bazuten ere, ekainaren 29an San Pedro egunez Michelinen jokatu den itzulerakoan 1-2 galdu zuten. Kontrako tanteoak kondenatu zituen herritarrak. Finalean Oiartzun garaituta txapeldun

izan ziren gerora donostiarrak.

Aurten egoera bestelakoa da, belaunaldi aldaketa izan du Lasarte-Oriako taldeak eta helburua ahalik eta lan txukunena egitea izango da, beste-lako helbururik jarri gabe.

Gainontzeko txapelketak

Bestalde, Udaberri txapelketan, bi partidu jokatu ziren joan den astean Michelingo pilotalekuan. Intzako Solanok 22-5 menderatu zuen Gaztelekuko Etxeberria lau t'erdian eta Jon Pello Artetxeren aurkaria, Antiguako Iribar, ez zen kantxara azaldu. Ondorioz, 22-0 irabazi zuen herritarrak. Artetxe kanporaketa fasera pasako da ligaxkan bigarren eginda. Solanok, lesioak tarteko, ez du pasatzerik izan hirugarren sailkatuta.

Azkenik, Axier Arteagak eta Gorrotxategi hernaniarrak Bergarako Torneo entzutetsuko finala jokatu dute astelehenean, Dario errioxarra eta Perez arabarraren aurka. Afizionatu mailan joka daitekeen partidarik handienetakoa da.

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 23
Zubieta, 24, 16:00etan
Hernani - Ostadar SKT
Erregionalen Ohorezko maila
34. jardunaldia.

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 22
Ostadarrek antolatutako herriko txapelketa play-offetan sartu da.
Michelingo kirol-gunea, 19:45ean
Indaux - Ilargi
Michelingo kirol-gunea, 20:45ean
Bar Also - Txoko Taberna

Larunbata 16

Michelingo kirol-gunea, 10:15ean
El Punto - Urdaneta HK
Michelingo kirol-gunea, 11:15ean
Insausti - Buenetxea
Michelingo kirol-gunea, 12:15ean
Txindoki - Reformas Lagunak

IGERIKETA

Igandea 24
Legazpi, 10:00etan eta 16:00etan
Gipuzkoako XXXI. Eskolarteko Txapelketa izango dute Buruntzaldea IKTKo 2003 urteko neskek eta 2002ko eta 2001eko mutilek.

TRIATLOIA

Larunbata 23
Hondarribia, 14:00etan
Enaitz Ibarburu, Andoni Salsamendi, Asier Gorostegi, Pili Bodegas eta Maria Mendibe triatletek Hondarribiko Triatloi Sprintean parte-hartuko dute.

PILOTA

Ostirala 22
Zizurkil, 20:00etan
Lasarte-Oriak hasiera emango dio Herriarteko Txapelketari, final-zortzirenetan.

ATLETISMOA

Igandea 24
Valladolid, 10:00etan
Gaizka Ormazabal Super Amara - BAT taldeko atletak Espainiako I. Mailako 2. jardunaldian lehiatuko du 200m eta 4x100 probetan.

Torrent, Valentzia 10:00etan

LOKEko Maider Rekondo disko eta pisu-jaurtiketan, Ane Galardi jauzi-hirukoitzean eta Eneritz Busto 100m hesietan Super Amara - BAT taldearekin arituko dira Espainiako I. Mailako 2. jardunaldian.

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 23
Legazpi, 16:00etan
Bazpiko ziklistek Hegialde Sarian hartuko dute parte. Lasterketak 77 kilometroko luzera izango du eta Atagoiti bi aldiz eta Izaga behin igo beharko dituzte lasterkariak.

GIMNASIA ERRITMIKOA

Larunbata 23
Ibarra, goiz eta arratsalde
LOKEko neskek Gipuzkoako Txapelketan parte-hartuko dute, banaka zein taldeka.

Agenda

Larunbata 23, 11:30ean, Lasarte-Oria



Antzerki eta dantza asteko mokadutxo

Kukuka dantza eta antzerki eskolak ohi bezala desfile koloretsuarekin iragarriko du XIII. Antzerki eta dantza astea. Ostean, jaialdi txikia izango da Okendo plazan. Eskolako talde guztiek haien emanaldien minutu bateko erakusketa egingo dute. Amaieran, guztiek batera eskolako ereserkia dantzatzeko dute.

Lasarte-Oria

Pailazoak

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Larunbata 23, 16:30ean

Pirritx, Porrotx eta Marimototsek 'Txo Mikmak Txikia' ikuskizuna eskainiko dute. Lasarte-Oriako Udal Musika Eskolako trikitilari eta panderojoleak, Xumela abesbatza, Literatur Txokoko kideak dantzan eta kantuan izango dira. Saio honetako txartelak agortuta daude. Irakurleen txokoak antolatua.

Larunbata 23, 19:00etan

Pirritx, Porrotx eta Marimototsek 'Txo Mikmak Txikia' ikuskizuna eskainiko dute. Sarrerak salgai Lasarte-Oriako Jalgi, Artizar eta Urruzola mertzerian. Eskual-

dean, Usurbilgo Bordatxo tabernan, Andoaingo Ernaitza liburudendan, Hernaniko Irrigoenea okindegian, Astigarraigako Ikatza tabernan eta Añorgako Jolas-etxea tabernan. Prezioa 7 euro. Irakurleen txokoak antolatua.

Musika

MENDI KAFE ROCK

Larunbata 23, 19:30ean

Psicoacoustic taldearen kontzertua. The Beatles taldearen kantak jotzen ditu herritar talde honek. Oraingoan "Help!" diskarekin ari dira. Aurten gainera 50 urte dira hau argitaratu zela. Kontzertu bira antolatu dute eta estreinekoz joko dituzte kantak. Sarrera doan.

13. Antzerki eta Dantza astea

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Astelehena 25, 19:00etan

Kukuka dantza eta antzerki eskolako DBH1 mailako gazteek 'Eduer zuri eta 7 ipotxak' lana eskainiko dute. Sarrera doakoa.

Asteazkena 27, 19:00etan

Kukuka dantza eta antzerki eskolako LH5 mailako gaztetxoek 'Artisten herria' eta 'Gu ere artistak gara' lanak eskainiko dituzte. Sarrera doakoa.

Osteguna 28, 19:00etan

Kukuka dantza eta antzerki eskolako DBH3 mailako gazteek 'Aupa Etxebes-te!' lana eskainiko dute. Sarrera doan.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Maiatzan zehar

Atzegi elkarteak erakusketa osatuko du #elkarrion kanpainako selfie-kin. "Elkarrion adimen urritasuna duten pertsonak asko dute emateko" kanpainaren barruan, jendeak bidalitako argazkiekin egindako bilduma izango da ikusgai.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Ekainaren 5 a arte

Brancussiko ikasleen margolan eta arte-lanen erakusketa ikusgai.

Hernani

XXIX. Txalaparta jaialdia

HERRIAN ZEHAR

Ostirala 22 eta larunbata 23

Hernani Musika Eskola eta Ttakun ttakun taldeak antolatuta XXIX. Txalaparta jaialdia ospatuko da.

Usurbil

III. Sagastiak loretan

POTXOENEA

Larunbata 23, goizean

Sagastien zaintza ikastaroa. Gaitzen eta izurriteen jarraipena Aitor Etxeandia, Nekazaritza Ingeniariaren eskutik.

Andoain

Argazkialdia 2015

BASTERO KULTURGUNEA

Ekainaren 12ra arte

Argazkialdia 2015-n barruan, Lobo Altuna, Iñigo Royo, Beñat Arregi eta Nagore Legarretaren argazki erakusketa. Tailerak eta ekintza ugari izango dira. Informazio gehiago, www.argazkialdia.com.

Herritarren txokoa

Maria Auxiliadoraren ohorezko meza

Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizan Maria Auxiliadoraren omezezko meza berezia ospatuko da Maria Auxiliadoraren egunean bertan, maiatzaren 24ean, igandean, eguerdiko 12:30ean. Ostean, mokadu bat jateko aukera izango da.

Oriatarren bazkaria

Karmengo Amaren egunean, uztailearen 16an, Oriatarren bazkaria antolatu dute El Jardin jatetxean. Aurten Karmengo Amaren kaperaren 75. urteurrena ospatuko dute eta On Ramon Uribetxeberria apaizari omenaldi txikia egingo zaio urte hauetan egindako zerbitzuarengatik. Bazkariak gozatu nahi duten herritarrek jate-txean bertan eman behar dute izena. Menua 30 euro dira eta haurrentzako bi menu daude, bata 8 eurokoa eta bestea 12 eurokoa.

Torredembarrara irteera

Lasarte-Oriako lagun talde batek Kataluniako Torredembarra herrira joateko autobusa antolatu du. Topaketa kultural honetan parte hartzeko jendea behar dute. Berezi Oriako Sorgin Dantza dantzatzeko duten herritarren bila ari dira. Maiatzaren 29an izango da irteera eta 31an itzuliko dira. Autobusaren prezioa 40 eurokoa da. Hilaren 30eko zikero janarena berriz, 20 euro. Izena emateko zerrondak Artizar eta Ildargin daude. Internetez, lot.topaketa@gmail.com helbidera idatzi dezakete interesatuek.

1960an jaiotakoaren afaria

Udaberri elkartearen egingo da maiatzaren 30ean. Honetan parte hartzeko aurrez izena eman behar da 688 665 082 edo 659 775 811 telefonotara deituta maiatzaren 27a baino lehen.

Eskutitza

HAMAIBABATEK EAJ/PNVren aldeko botoa eskatu du Lasarte-Orian

"Estitxu Alkorta andereak Lasarte-Oria aurrerabidetik jartzeko egitasmo eraikitzailea azaldu du"

Udal hauteskundeetako kanpaina aurrera doa, eta erabakitzeko garaia iritsi dela esan behar dugu. Datozen lau urteetan herria gobernatzeko duen agintaritzak aukeratu behar dugu.

Besteren artean, bi arazoei eutsi behar zaie premiaz hastear den udal legegaldi berrian.

Alde batetik, Lasarte-Oria terrorismoak gordinki jo duen herria izanik, bertako biktimak oroitzera, bakea finkatu eta elkarbizitza berreraikitzea dagokigu indarkeriek utzi diguten arrasto gaizto hori ezabatzeko. Ba dago zer hobetzea bizikidetasunaren eremuan, gure jatorriko aniztasun aberatsa kamustu gabe.

Beste aldetik, Lasarte-Oriako ekonomiaren egoerari aurre egin behar zaio. Lanpostuak sortuko dituzten enpresei atak ireki behar dizkiegu. Ekonomiaren alorrean, Udala norabiderik gabe gelditu dela dirudi. Lasarte-

oriatarrok iraganean, bitarteko gutxiagorekin, azaldu dugun joera baikor eta eraikitzailea adierazteko unea dela deritzogu.

Abertzaleon esparruan, guk EAJren alde egingo dugu. Lasarte-Oriako Hamaikabaten iritziz, Estitxu Alkorta andereak Lasarte-Oria aurrerabidetik jarraitzeko egitasmo eraikitzailea azaldu du, gure herriak dituen arazo nagusiei aurre egiteko oso gai dela erakutsiz.

H1!

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 366858 txintzarri@txintzarri.info



Atsobakar zahar egoitzako langileek Clececi lan-hitzarmena sinatzeko eskatu zioten asteazkenean.

Atsobakarreko langileen aldarria kalean

Clecek ez du lan hitzarmena sinatu nahi

Atsobakar Zahar egoitzeko langileak greban daude. Zahar egoitza kudeatzen duen enpresak, Clecek, ez du Foru Aldundiak aurkeztutako lan hitzarmena sinatu. Langileek mobilizazioak egin dituzte aste hauetan zehar egoera salatzeko. Gipuzkoako Aldundia egoera desblokeatzen saiatzen ari da.

Atsobakar Zahar Egoitzako enpresa kudeatzailea den Clecek ez du Gipuzkoako Foru Aldundiak proposatzen duen lan hitzarmena sinatu nahi eta ELA, UGT eta CCOO sindikatuen babesarekin greban daude langileak.

Aste hauetan egoitza aurrean bildu dira langile eta egoiliarrek egoera salatzeko.

Asteazkenean, herriko kaleetara irten ziren txilibitu eta aldarrikapenekin. San

Pedro elizatik atera eta eguraldiari aurre eginez, herritarrei haien egoera jakitera eman eta enpresari lan hitzarmena sinatzeko eskatu zioten langileek.

Enpresa kudeatzaileak jarrera aldatu arte, langileak greban eta mobilizazioak egingen jarraituko dute.

Aldundia bileretan

Bestalde, Gizarte Politikako Foru Departamentuak proposatutako lan hitzarmena sinatzeko eskatu zien adinekoren egoitzak

eta eguneko zentroak kudeatzen dituzten erakundeei.

Ander Rodriguez Gizarte Politikako diputatuak azaldu zuenez, "Aldundia ahal duen gutzia egiten ari da gatazka ebazteko, egoitzetako eta eguneko zentroetako erabiltzaileak babesteko eta langileen lan eskubideak bermatzeko". Honek zerbitzu hauek kudeatzen dituzten erakunde guztiekin bakarkako bilerak egiten ari dira Aldundiaren konponbidea aurkezteko, Aldundia prest dago 11 milioi euro ekartzeko alorreko 4.800 langileen lan baldintzak hobetzeko. Zentroen ia %60k sinatu du proposamen hau.

Konponbidea sinatu nahi ez duen erakunderik bada, Aldundia hainbat neurri hartuko dituela ere jakitera eman du, hala nola, ez ditu tarifa berriak onartuko.

Estatugintza feminista



Jende andana hurbildu zen asteartean Manuel Lekuonara.

Jule Goikoetxearen hitzaldia-ekin amaiera eman zioten Irakurle Txokoko kideek ikasturteari. Hala ere, Uxue Alberdik esan bezala, datorren ikasturtean bueltan izango dira eta asteartean hurbildutako gonbidapena luzatu zuten euskarazko literaturaren txokoa parte hartzera.

Hitzaldian Euskal Estatugintza Feminista izan zuen hizpide Goikoetxeak. Egitura politikoa, ekonomikoa eta soziala banatuta hainbat galdera plazaratu zituen. Espazio publikoa eta pribatuaren arte-

ko bereizketa egin zuen eta honetan emakumea pribatua kokatu zuen "eremu publikoa, gizonena da eta eremu pribatua, hau da etxea, natura, emakumearena. Banaketa hau ez da nahigabe sortzen" adierazi zuen. Egitura sozialaren baitan familia kokatu zuen. "Baina zer da familia?"

Galdera horien erantzuna azaldu eta estatu demokratiko feminista eraikitzeko hainbat gako eskaini zituen.

'Traktatus' bere poesia liburuaren inguruan ere aipamena egin zen asteartean.

'Tratu on bat' App berria



Mugikor eta tabletentzat aplikazio berria aurkeztu zuten atzo herriko merkatariak.

Lasarte-Orian, komertzioek, Lostalaritzak eta zerbitzu-enpresek dute eraginik handiena hurbileneko ekonomian.

Horrela, "Lasarte-Oria, Tratu on bat" markaren baitan, *eskaintzak.lasarte-oria.eus* web-a sortu zen herriko denden eskaintzak eta orokorrean establezimenduak ikusteko aukera ematen duen

erakusleho bezala. Momentu honetan, proiektuan parte hartzen ari diren 107 establezimenduen eskaintza zabala ikusteko aukera dago honetan.

Bestalde, webgunearen osagarri moduan, mugikor-rako aplikazioa eskura jarri du aste honetan Udalak Google Play-en eta App Store-n.

ehbildu

LASARTEORIATARROK garrantzitsuak! garrantzitsuak! garrantzitsuak!

HERRI BIZIA

"Herritarren parte-hartzea eta gardentasuna izango dira gure lana zuzenduko dutenak"